

# PROBLEMAK

Datuak bildu eta ordenatu

1/ Kutxa hauetako bakoitzean gauza bakarra dago.

Gauzak hauek dira: esku-argi bat, lepoko bat eta baloi bat.

Prezioak hauek dira, baina ez dakigu zein dagokion zeini: 12 €, 5 € eta 45 €.



..... kaxa; ..... €



..... kaxa; ..... €



..... kaxa; ..... €

Dakiguna hauex da:

- A kutxan dagoena da garestiena.
- Garestienak ez dira ez esku-argia eta ez baloia.
- Baloia ez da merkeena.
- Baloia ez dago B kutxan.

Kutxa bakoitzean zer dagoen eta bakoitzak zenbat balio duen jakin nahi dugu. Kontuan izan ilara eta zutabe bakoitzean "bai" behin bakarrik ager daitekeela.

|         | Esku-argia | Lepokoa | Baloia | 5 € | 12 € | 45 € |
|---------|------------|---------|--------|-----|------|------|
| A kutxa |            |         |        |     |      |      |
| B kutxa |            |         |        |     |      |      |
| C kutxa |            |         |        |     |      |      |
| 5 €     |            |         |        |     |      |      |
| 12 €    |            |         |        |     |      |      |
| 45 €    |            |         |        |     |      |      |



Osatu hutsuneak:

| Gauza | Lekua | Prezioa |
|-------|-------|---------|
|       |       |         |
|       |       |         |
|       |       |         |

- 2/ Ariketa honetan hiru auto marka ditugu: Renault, Opel eta Seat. Hauen matrikulen letrak BFE, MCH eta UJK dira, eta zenbakiak, berriz, 3014, 0314 eta 3685. Baina ez dakigu bakoitzari zein dagokion.

|                                                                                   |                                                                                   |                                                                                    |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|
|  |  |  |
| <b>RENAULT</b>                                                                    | <b>OPEL</b>                                                                       | <b>SEAT</b>                                                                        |
| Letrak: .....                                                                     | Letrak: .....                                                                     | Letrak: .....                                                                      |
| Balioa: .....                                                                     | Balioa: .....                                                                     | Balioa: .....                                                                      |

Dakiguna hauxe da:

- Renault autoak ez ditu BFE letrak, eta balio txikieneko zenbakia du.
- Zenbakirik handiena ez dagokio Opel markako autoari.
- Zenbakirik altuena MCH letrak dagozkion autoak du.

Auto marka bakoitzari dagokion matrikula zein den jakin nahi dugu.

Kontuan hartu ilara eta zutabe bakoitzean "bai" behin bakarrik ager daitekeela

|         | 3014 | 0314 | 3685 | BFE | MCH | UJK |
|---------|------|------|------|-----|-----|-----|
| Renault |      |      |      |     |     |     |
| Seat    |      |      |      |     |     |     |
| Opel    |      |      |      |     |     |     |
| BFE     |      |      |      |     |     |     |
| MCH     |      |      |      |     |     |     |
| UJK     |      |      |      |     |     |     |



Osatu hutsuneak:

| Marka | Letrak | Zenbakiak |
|-------|--------|-----------|
|       |        |           |
|       |        |           |
|       |        |           |

Jada ikasita dituzun zenbaki-sistemak gogoratzearekin batera, beste bat erakutsiko dizugu.

Zenbaki-sistema arabiarra:

Zifrak: 1 2 3 4 5 6 7 8 9 0


Zenbaki-sistema erromatarra:

|           |   |   |    |    |     |     |       |
|-----------|---|---|----|----|-----|-----|-------|
| Digituak: | I | V | X  | L  | C   | D   | M     |
|           | 1 | 5 | 10 | 50 | 100 | 500 | 1.000 |

Zenbaki-sistema egiptoarra:

|   |    |     |       |
|---|----|-----|-------|
|   | ∩  | ⊙   | ⌒     |
| 1 | 10 | 100 | 1.000 |

- Adierazi letra baten bidez balio bera duten zenbaki guztiak:



1/ Idatzi zenbaki hauek zutabe bakoitzetik zifra bat hartuta:

|   |   |   |   |   |                                                     |
|---|---|---|---|---|-----------------------------------------------------|
| 2 | 3 | 6 | 7 | 8 | Hogei mila berrehun eta hamabost                    |
| 5 | 0 | 5 | 8 | 2 | Berrogeita hamahiru mila bostehun eta laurogeita bi |
| 4 | 0 | 2 | 0 | 9 | Berrogei mila seiehun eta hirurogeita hemezortzi    |
| 8 | 5 | 7 | 1 | 3 | Laurogeita bost mila eta berrogeita hiru            |
| 1 | 6 | 0 | 4 | 5 | Hamasei mila zazpiehun eta bederatzia               |

2/ Adierazi kasu bakoitzean markatuta dagoen zifrari dagokion balioa:

23.562 → 500


14.872 → .....

14.765 → .....

48.785 → .....

36.798 → .....

45.896 → .....



- Zenbakien ezaugarri bitxi bat da honako hau:
  - Hartu bi zifra desberdineko edozein zenbaki: 47.
  - Alderantziz jarri zifren ordena: 74.
  - Handienari txikiena kendu:  $74 - 47 \rightarrow 27$
  - Zenbaki horren zifrak batu:  $2 + 7 \rightarrow 9$

Zer gertatzen da horrelako beste zenbaki bat hartuz gero?